

## LASTERKETAK MENDIAN? ZERGATIK?

**O**SO argi dago Goi-Mendian azkartasuna garrantzi handiko kontua dela. Goiz irten eta arin ibili behar da bueltan garaiz egoteko. Egun luzeak izan ohi dira, maiz arratsalde arriskugarriekin eta babesik gabeko gauak hilgarriak gerta daitezke. Alberto Zeraini galde egin diezaiotela, egitekoak ongi eta zegokien uanean egin eta onik irten baitzen lehengo abuztuaren 1ean K2tik. Oraindik gordetzen du gogoan zirrara batez, jaisten ari zela, gainerako mendizaleekin gurutzatu zeneko unea, gailurra beranduago egin eta jaistean, 8200 metroetara, Botilako Zintzurrean tranpak harrapatu zituen eta.

Baina azkartasuna eta zehaztasuna ez dira abiaduraren esanahikideak. Lasterka egitea erantsitako balioa da, ez ordea garrantzikoena. Himalaian zortzimilak igo eta jaistean abiada errekorrak haustea ez da oinarritzkoena, ezta arintasuna lehenetsirikoa aldaia ere zailtasun handiko eskaladan. Alpinismo ez-lehiakorrean hobesten dena ez da arinenik eskalatzea, igobiderik estetikoena osatzea baizik, edo arriskutsuena ere bai, nahi bada, erarik seguruenean gauzatzen bada.

Eta behe-mendian, zer dela eta egin behar dira txangoak lasterka? Kontraesanekoa da mendian zehar lasterketak egitea? Zenbaitek oso argi dauka. Anjelen ustetan, adibidez, museo batean lasterketak egitea pentsatuko bagenu bezalakoxea izango litzateke: ea zeinek ibiltzen duen Louvreko museoa denborarik gutxienean galeria guztiak bisitaturik. Hau da, museoako galeriak ibiltzean azkartasuna sarituko litzateke, koadroak ikustearen atseginarekin ordez. Zentzurik izango ote luke?

Honetaz guztiaz hausnarrean nengoela, Londresko Tate Britain-en ikusgarri berezia antolatutako dutela irakurri dut egunkarietan, hain

zuzen ere, lau hilabetetan, hango 50 atletak lasterka egingo dutela museoeko Duveen erakusgelan zehar, 86 metro luze dena, eta 30 segundutan behin. Erakusgarria, Martin Creed artista entzutetsuak sortua, "gizakiaren oinarritzko jardueren esplorazioan eginiko ekitaldi artistikotzat" hartu da eta, Londresko udako ustezko kultur gertakarietako bat izan omen da.

Alegia, norbera nahastu egiten da arte garaikideko zenbait gauzarekin, baina itzul nadin mendian lasterka egitearen kontura. Ez daukat ezer mendian lasterka egin edo lasterketak antola daitezken kontra, (kasu guztietan bezalaxe, baldin ingurumenaren eta gainerako lagunon errespetuaren arauak betetzen badira). Korrika egitea ona delako, oso ona. Nonahi eta noiznahi. Korrika egitea hilda egotearen aurkakoa da. Abantaila handiak ditu, buru- eta gorputz-sasoian egotea dakar eta, halaber, osasun neurri ezin hobea da. Eta mendian lasterka egitea are hobea da, bi plazer elkartzen baitira: korrika egitearena eta mendian egitearena.

Mendian guztiek dute lekua... baldin ongi portatzen badira. Eskalatzaileak, eskiatzaileak, ziklistak, lasterkarien moduko atletak, tramankulu desberdinetan hegaz egiten duen jendea, barrankistak, espeleologoak... baita aipagarriak diren argazkilariak, olerkariak, zientzialariak, e.a., e.a., denek gauzatu ahal dituzte beren zaletasunak mendian. Aski da. Utziezadazue, hala ere, Evelio Echevarriak egiten duen mendizaletasunaren adierazpena aipatzen, Pyrenaicn idatzi zuen bezala, "denda jarri, hor zehar menturatuta, ezagutzan hazi, lagun hurkoarekin solastatu, biztanlerik gabeko lurretan nahiz lasaitasuna erregina den ibarretan barnatzea" amesten duenean.

## ¿CARRERAS EN EL MONTE? ¿POR QUÉ?

**E**STÁ muy claro que la rapidez es algo muy importante en la alta montaña. Hay que salir temprano y andar rápido para volver pronto. Son habitualmente jornadas largas, las tardes son a menudo peligrosas y las noches sin protección pueden ser mortales. Que se lo pregunten a Alberto Zerain, que hizo los deberes bien, en su momento, y salió perfectamente del K2 el pasado 1 de agosto. Todavía está impresionado recordando, cuando bajaba, el momento en el que se cruzó con el resto de grupos de alpinistas que hicieron cima más tarde y al bajar les pilló la trampa en el Cuello de Botella a los 8200 metros.

Pero rapidez y precisión no es lo mismo que velocidad. Correr es un valor añadido pero no es el más importante. Ni en el Himalaya lo fundamental es batir records de velocidad en subir y bajar a un ochomil, ni en la escalada de dificultad la velocidad es la variable prioritaria. En el alpinismo no competitivo lo que prima no es escalar lo más rápido sino hacer la vía más estética, o incluso la más arriesgada, pero de la forma más segura.

Y en la baja montaña, ¿qué sentido tiene hacer las excursiones corriendo? ¿Es un contrasentido hacer carreras en el monte? Hay algunos que lo tienen muy claro como cuando dice Ángel que sería lo mismo que si nos planteásemos hacer carreras en un museo: a ver quién recorre en menos tiempo, visitando todas las galerías, el museo del Louvre. Es decir se premiaría la rapidez en recorrer las galerías de un museo en vez del placer de disfrutar de los cuadros. ¿Tendría sentido?

Cuando estaba pensando en eso, leo en los periódicos la noticia de que precisamente se ha organizado un espectáculo en la Tate

Britan londinense, consistente en que, durante cuatro meses, 50 atletas locales correrán a través de la sala Duveen del museo, de 86 metros de longitud, en intervalos de 30 segundos. El espectáculo, ideado por el laureado artista Martin Creed, se considera "una actividad artística en la exploración de las actividades básicas humanas" y se supone que habrá sido uno de los acontecimientos culturales del verano en Londres.

En fin, uno se confunde con algunas cosas del arte moderno, pero vuelvo al hecho de ir corriendo por el monte. No tengo nada en contra de que se corra ni de que se celebren carreras por el monte (como en todos los casos siempre que se cumpla las reglas de respeto al medio ambiente y a los demás). Porque correr es bueno, es muy bueno. En cualquier sitio y a cualquier hora. Correr es lo contrario de estar muerto. Tiene muchas ventajas, implica estar en una buena forma física y mental, e incluso es una excelente terapia sanitaria. Y correr en el monte es todavía mejor: se juntan dos placeres, el de correr y el de estar en el monte.

En el monte hay sitio para todos... los que se porten bien. Escaladores, esquiadores, ciclistas, atletas como los corredores, gente que vuela en distintos aparatos, barranquistas, espeleólogos... y sin hablar de fotógrafos, poetas, científicos, etc, etc, todos pueden desarrollar sus aficiones en el monte. Vale. Pero dejadme que termine citando la expresión del montañismo que hace Evelio Echevarria, cuando sueña, como escribió en Pyrenaica, en "acampar, aventurarse, ganar conocimiento, alternar con otra gente, marchar por tierras deshabitadas y por valles donde reina la calma."

Txomin Uriarte